

Harrizko Kurutzea

Distantzia 10,3 km	Desnibela 171 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	------------------------

Uztaritzetik, joan D250 errepidetik, Senpererantz. Oihanean sartu baino lehentxeago, aparkatu eskuinaldean, orientazio mahaiaren aparkalekuan. Senperetik, joan D3 errepidetik, eta, gero, D250 errepidetik, Uztaritzerantz. Oihanetik ateratzean, aparkatu ezkerrealdean, orientazio mahaiaren aparkalekuan.

GPS datuak: **UTM : 622064 - 4804950 Lat/Long : 43°3874/-1,4929**

Itzalpean eta leku errazean ibilaldi bat egin nahi duzu? Horra! Zoriona kausitu duzula Harrizko Kurutzea ibilbideak askotariko paisaiak eskaintzen ditu, batzuetan ikuspegi ederrekin mendietara eta besteetan udan zinez gustagarriak diren oihanpeko ibilaldi zati anitzekin. Ibilbidearen bukaeran ikusten den harrizko gurutze batetik hartzen du izena ibilbideak. 2,50 m-ko altuera du gurutzeak, eta "1713" inskripzioa darama, Espainiako Ondorengotza Gerlan preso izandako eta eraildako ingeles soldaduen omenez. Gerla horretan, 1701 eta 1714 urteen artean, koalizio europar baten aurka borrokatu ziren Frantzia eta Espainia.



1. ZATIA > Abiatzea errepidean

UTM: 622064 - 4804950. Orientazio mahaiaren aparkalekutik, errepide bazterretik ibiltzen hasi, Uztaritzerantz. 700 m urrunago, bidegurutze batera iritsi.

2. ZATIA > Beheranzko bidea

UTM: 622727 - 4804874. Joan eskuinera, eta errepide honetan 750 m ibili. Orduan, errepidea bide bilakatzen da. Jaisten segitu, ibarxkaren barneraino.

3. ZATIA > Oihaneko bidea


UTM: 623316 - 4803586. Biratu eskuinera, eta bide berri horretan 70 m ibili. Ezkerreko zurezko zubixka zeharkatu eta oihanetik atera. Segitu zuzen, iratzeleku bat zeharkatzen duen bide batetik, eta 150 m ibili. Iratzelekua pasatu eta berehala, bidea berriz oihanean sartzen da, eskuinerantz. Oihaneko bide horretatik jarraitu, 1,1 km ibili, eta, azkenik, beste bide batera iritsi!

4. ZATIA > Oihana

UTM: 622455 - 4802983. Joan eskuinera eta jarraitu bidetik. Bidea igotzen hasten da, eta laster bidegurutze batera iristen da. Joan berriz eskuinera, bide berritik. Bide hori oihanean barna doa, eta erreka batera iristen da. Erreka ibitik iragan ondoan, beste bide batera iritsi. Bide hori ezkererantz segitu behar da. 100 m urrunago, xeila bat pasatu.

5. ZATIA > Kapera

UTM: 621627 - 4802431. Xeilaren ondotik, berehala, joan eskuinera bidexka arras ttipi batetik. Bidexkan jaitsi, zubixka batera iritsi arte. Gero, pentze baten bazterretik ibili,



Otsantzeko kaperaraino. Kaperaren ondotik, berehala, etxeen itzulia egin, eskuinetik. Errepide ttipi batera iritsi. Errepidea patar ez tian gora doa. 1,5 km ibili, eta D3 errepidera iritsi.

6. ZATIA > D3 errepidearekiko paraleloa den bidexka

UTM: 620602 - 4803538. D3 errepidea baino metro batzuk lehenago, joan eskuinera, etxola baten gibelean hasten den bidexka diskretu batetik. Bidexka ttipi batetik jarraitu, oteen eta D3 errepidearen bazterreko zuhaitzen artean, errepidetik hurbil. Hortik segitu, bide batera iritsi arte. Bidetik jarraitu, ezkererantz. 200 m urrunago, D3 errepidea baino lehentxeago, joan eskuinera, errepidearen bazterretik doan bidetik. D3 eta D250 errepideen arteko bidegurutzeraino ibili.

7. ZATIA > Harrizko kurutzea

UTM: 621153 - 4804379. Errepidea baino metro batzuk lehenago, joan eskuinera beste bidexka atsegingarri batetik, D250 errepidearen bazterretik. Harrizko Kurutzea iritsi.

8. ZATIA > Aparkalekura itzultzea

UTM: 621658 - 4804706. Gurutzea bisitatu ondoan, bide beretik itzuli, aparkalekuraino.



IBILBIDEEN TOPOGIDA

INTERESGUNEAK

❖ Amerikar haritzak

Zuhaitz hau Ipar Amerikako ekialdekoa da jatorriz. Beste arbola hostotsu batzuekin hazten da, hala nola lizarrekin, ezkiekin eta beste haritz mota batzuekin. 1724tik sartu zuten Europan, eta gaur egun Eskandinaviako hegoalderaino hedatzen da. Garaian, haren apaindura ezaugarriengatik landatzen zen, udazkeneko hostotzagatik bereziki. Gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen da oihana berritzeko, europar haritzak baino zaluago hazten baita. UTM: 660515 - 4780124

❖ Otsantzeko kapera

Kapera hau Uztaritzeko, Zuraideko eta Senpereko herrien mugan dago. Joan den mende arte, euria eskatzeko prozesioen bilgunea zen. Erdi Arokoa da. Kristauek inbasioen aurka ezkutatze erabiltzen zuten, eta beilariek Jondoni Jakue bidean geldialdia egiten zuten hor. Frantziako Iraultzan suntsitu zuten kapera. Antzinako zimendu babestuen gainean berreraiki zen, eta 18,30 m-ko luzera eta 7 m-ko zabalera ditu. Brontzeko hondakinak dituen labe baten hondakinak erakusten dute garai hartako ezklila lurrean moldatu zela. UTM: 659196 - 4779531

❖ Harrizko kurutzea

2,50 m-ko altuera du gurutzeak eta "1713" inskripzioa darama, Espainiako Ondorengotza Gerran preso izandako eta eraildako ingeles soldaduen omenez. Gerla horretan, 1701 eta 1714 urteen artean, koalizio europar baten aurka borrokatu ziren Frantzia eta Espainia. UTM: 659248 - 4778295

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Abiapuntu errepidea
Lehen 700 metroak guti erabilia den D250 bide bazterretik egiten dira oinez. Bide bazterrean egon eta arretaz ibili
UTM : 622064 - 4804950

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Piknika mahaia abiapuntuko aparkalekutik hurbil

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.